



Kupelak husten hasteko garaia

Txotx garaia hasi da. Astigarragan, asteazkenean egin zuten hasiera ofiziala, Zapiain sagardotegian, eta Eneko Atxa sukaldariari egokitu zitzaion sagardo garaiari hasiera ematea —irudian—. Usurbilen, atzo hasi zuten garaia, Saizar sagardotegian; Hernanin, berriz, bihar egingo dute hasiera ekitaldia, 12:00etan, plazan —eguraldi txarra egiten badu, Atsegindegain izango da—. Goierrin, urtarrilaren 28an egingo dute inaugurazioa, goizetik, Legorretako Aulia sagardotegian. 2016ko uztan, hamabi milioi litro sagardo egin dituzte Gipuzkoan. ARGAZKI PRESS